MEMORIA ECONOMICA DE GASTOS E INGRESOS

GASTUEN ETA DIRU-SARREREN MEMORIA EKONOMIKOA

Ejercicio 2023

2023ko ekitaldia

MEMORIA ECONOMICA DE GASTOS E INGRESOS
ILTRE. COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE BIZKAIA

Ejercicio 2023

El ejercicio económico 2023 ha vuelto a ser un ejercicio completamente inusual a consecuencia de los acontecimientos geopolíticos y macroeconómicos que han tenido lugar, causando todo tipo de alteraciones en las previsiones que los organismos público-privados tenían hechas para el mismo.

A lo largo de este ejercicio se ha sufrido un cambio espectacular en la política de los Bancos Centrales con el objetivo de luchar contra las elevadísimas tasas de inflación provocadas por la inestabilidad geopolítica de los conflictos bélicos que están teniendo lugar a nivel mundial como son la guerra entre Rusia y Ucrania e Israel y Palestina. Ante esta situación y con el objetivo de frenar la escalada de precios, los Bancos Centrales han procedido a elevar como nunca antes los tipos de interés provocando que cualquier presupuesto hecho con anterioridad al cambio de política quede desvirtuado.

Este inesperado aumento de los tipos de interés ha causado que la rentabilidad de las inversiones financieras del Colegio aumente considerablemente generando un importante superávit en comparación lo presupuestado a finales del 22, momento en el cual se desconocían las medidas que iban a tomar los Bancos Centrales.

Como viene siendo habitual, en el cuadro que se acompaña a esta memoria, junto a las cantidades que señalan la ejecución económica realizada durante el año, se incluye por cada centro de gasto otra columna con la cantidad que se presupuestó por el mismo concepto para el ejercicio, de forma que el lector pueda realizar una fácil comparación con lo aprobado en la Junta General de Presupuestos celebrada el día 27 de diciembre de 2022.

Este cuadro ofrece de forma clara, sencilla y completa, toda la información económica de los gastos e ingresos realizados a lo largo del año, en base a la contabilidad analítica que tiene establecida el Colegio, describiendo de forma exhaustiva las partidas y los conceptos a los que el Colegio destina sus fondos, así como las vías de entrada de ingresos también desglosada por los mismos epígrafes. De esta forma puede comprobarse de forma rápida cada una de ellos y su repercusión real en los gastos e ingresos colegiales, pudiendo observar igualmente en cada concepto el posible desvío que se ha producido respecto a lo presupuestado.

Además del desglose exhaustivo que se realiza de las partidas especificadas por centro de actividad recogidas en el informe de gastos e ingresos, en esta memoria se comentan algunos aspectos que estimamos deben reseñarse por su especial relevancia económica, sin perjuicio de la amplia información y presentación que se realizará por parte del Tesorero del Colegio en el acto de **Junta General** que tendrá lugar el próximo **día 24 de abril, miércoles, a las 13,00 horas**, en el Salón de Actos de nuestra sede, en la calle Rampas de Uribitarte 3 de Bilbao.

De forma más pormenorizada destacamos, por su relevancia colegial o su importe económico, **las siguientes partidas o centros de costo**:

Servicios Generales:

En este apartado se engloban todos aquellos gastos e ingresos estructurales o funcionamiento ordinario del Colegio que no pueden ser atribuidos a otro centro de coste concreto de la analítica, por ello se trata de la partida de cuantía más elevada.

Gastos (Servicios Generales):

A continuación, incluimos una breve explicación de aquellos gastos que dentro de servicios generales merecen, a nuestro entender, una mención especial dada su relevancia:

- La cuenta *603*, de ***Biblioteca*** *(70.092 €)*.

  Se ha ejecutado una cantidad inferior a la presupuestada e inferior igualmente a la que se ha ido ejecutando los últimos años, pero siempre reseñamos especialmente dada su gran importancia no solo por el importe, 70.092 € (85.000 € presupuestados), sino porque este servicio es considerado uno de los principales que se ofrece al colectivo y lo refleja la intensa utilización que se realiza diariamente por parte de los compañeros/as. Incluye la compra de monografías, suscripciones de publicaciones periódicas, boletines oficiales, bases de datos jurídicas, encuadernaciones, etc., además de la suscripción a las bases de datos de Legislación y Jurisprudencia vía Online que se ofrecen a los colegiados en la biblioteca del Colegio, en los Palacios de Justicia de Barroeta y Buenos Aires, así como en nuestras dependencias en las oficinas de los Partidos Judiciales de Barakaldo, Getxo, Gernika y Durango.

  Además, se ha optado por mantener el servicio de préstamo de libros y de Información de Legislación y Jurisprudencia implantado durante la pandemia que tan bien se ha valorado por nuestras/os usuarias y usuarios.

- La cuenta *607*, ***Trabajos Realizados por otras Empresas,*** por importe de *66.547 €.*

  Esta partida incluye lo que el Colegio destina al gabinete de comunicación o a la generación de carnés colegiales con firma electrónica. Además, se recoge lo que el Colegio destina a la limpieza, arreglo y confección de las togas existentes en todas las sedes colegiales. En este caso, como consecuencia del restablecimiento de la exigencia de toga en los tribunales, el gasto ha vuelto a aumentar de forma considerable y se espera que se mantenga en esta tónica. Este 2023, solo el coste de mantenimiento y reparación de togas ha ascendido a 36.624,48€.

- La cuenta *622*, ***Reparaciones y Conservación,*** por importe de *110.826 €.*

  En esta partida se incluyen, todos aquellos gastos derivados del mantenimiento de las instalaciones y equipos de las diferentes sedes colegiales necesarios para su funcionamiento: mantenimiento de ordenadores y fotocopiadoras, limpieza de locales y todo tipo de pequeñas reparaciones, sistemas de vigilancia y detección de incendios, climatización, ascensores, mantenimientos informáticos, etc., así como otros gastos generales ordinarios propios de nuestra actividad.

- La cuenta *623* (*150.634,74 €), **Servicios prestados por Profesionales Independientes.***

  Supone siempre una cantidad reseñable de nuestro presupuesto. Se refiere básicamente al abono a los profesionales, principalmente abogados/as, que realizan labores en diversas actividades colegiales, tales como los informes previos de las diligencias informativas y expedientes disciplinarios que se tramitan en el Colegio, las tasaciones de costas que se realizan a petición de los juzgados y tribunales y los informes de responsabilidad civil que realiza el Colegio en caso de que se declare un siniestro por dicho motivo. Esta partida ha sufrido un fuerte incremento en los últimos años, motivado principalmente por el abrumador número de solicitudes de informes de tasaciones de costas que durante el ejercicio hemos recibido de diversos juzgados para su resolución en el Colegio, provenientes principalmente de asuntos bancarios, donde las entidades que han sido vencidas en las causas, impugnan las minutas de los profesionales. A pesar del aumento de los últimos años, en este 2023 se ha percibido una sensible reducción en el número de informes tramitados, lo que ha provocado una considerable reducción sobre el importe presupuestado.

  Igualmente se incluye el costo de la empresa que realiza la auditoria anual de las cuentas colegiales, así como los gastos derivados de los profesionales que el Colegio contrata para las continuas adaptaciones y mejoras informáticas relacionadas con la gestión del Colegio y las plataformas de comunicación con los colegiados, las cuales se encuentran en constante evolución.

- La cuenta *6272* de ***Publicidad y Propaganda*** (*49.749 €).*

  Esta partida recoge, los gastos originados por la publicidad institucional que realiza el Colegio en favor de la utilización de los servicios de la abogacía por parte de los particulares. Como en los últimos ejercicios, este año se ha llevado a cabo una doble campaña, por un lado, en el mes de Diciembre, a través de los carteles con mensajes impactantes instalados en las estaciones del Metro, Euskotren y las marquesinas de Bizkaibus, dando cobertura de esta forma a toda Bizkaia, y por otra parte, como en años anteriores, se aprovecha una oferta de publicidad muy atractiva económicamente realizada por el periódico El Correo, para la publicación de anuncios que nos dan la oportunidad de estar presentes en ese medio a lo largo de todo el año.

Con las campañas publicitarias generales se quiere reforzar la imagen de nuestros colegiados y colegiadas, y que los particulares que habitualmente no utilizan los servicios de un abogado/a lo hagan, impulsando la necesidad y ventajas de la Abogacía Preventiva.

- Cuenta 6291, ***Comunicaciones*** (*30.947 €).*

Se incluyen en la misma todos los gastos derivados del envío de correspondencia por medio de los servicios postales o similares, así como los de telefonía y acceso a Internet (Wifi) existentes en las diversas oficinas del Colegio o la interconexión telemática y telefónica entre las mismas. Estas comunicaciones van adquiriendo más importancia según se van incrementando los servicios que se ofrecen a los colegiados a través de la extranet, sin embargo, se ha ido consiguiendo una rebaja de su coste por la negociación realizada con los proveedores y la reducción del precio de este tipo de servicios, así como por la política de comunicación del Colegio en todos los ámbitos, derivándola hacia los sistemas telemáticos que tan buen servicio nos ha ofrecido en la época de pandemia.

- Cuenta 6293, ***Fondo de Solidaridad*** (*3.000 €).*

Conforme a los criterios establecidos en el reglamento de funcionamiento que se aprobó por el Colegio hace más de una década, el Colegio dota anualmente está cantidad para destinarla como ayuda principalmente a hijos y viudas de colegiados. Este año, la cantidad que finalmente se ha aplicado ha sido superior, concretamente 23.301,00 €, para lo cual hemos utilizado el superávit existente en nuestro balance procedente de las cantidades aportadas al fondo en anteriores ejercicios.

Dicho reglamento está accesible a todos los colegiados y posibles beneficiarios en la página web del Colegio, www.icabizkaia.eus. Recordamos que las solicitudes deben tramitarse antes del mes de octubre, sin perjuicio de que se estudien, y en su caso se atiendan, aquellas situaciones sobrevenidas a lo largo del año.

- Cuenta 631, ***Tributos*** (*1.973 €).*

En esta cuenta estamos reflejando el importe total destinado por el Colegio para dicho concepto, y lo reseñamos porque como consecuencia de la obtención de la calificación del edificio del Colegio como Bien Cultural de Protección Especial con la categoría de Monumento queda exento de pago del Impuesto de Bienes Inmuebles.

- La cantidad dedicada a ***Personal*** (Sueldos y salarios, Seguridad Social y Otros gastos sociales).

A pesar de que estamos tratando el departamento de Servicio Generales, consideramos que en lo que se refiere a gastos de personal debemos hacerlo de forma conjunta con el resto de servicios colegiales, por lo que a continuación indicamos hace

referencia a todos los centros de coste del Colegio y a todas las partidas relacionadas con el personal, Sueldos y salarios, Seguridad social y Otros gastos Sociales.

Así, el total de lo desembolsado por el Colegio por estos conceptos durante el ejercicio 2023 ha ascendido a 1.511.857,82 €, cantidad algo inferior a la presupuestada (1.660.680 €). Este importe incluye en este ejercicio 2023, 61.000 € de dotación del Plan de optimización y relevo de plantilla aprobado por la Junta de Gobierno para los próximos años.

El porcentaje respecto al total de los gastos colegiales es ligeramente superior al del ejercicio anterior (43% frente al 41,48 % del año anterior), y a pesar de seguir siendo de considerable entidad, hemos de valorarlo teniendo en cuenta que el Colegio basa en el personal contratado laboralmente el desarrollo de la mayor parte de los servicios que ofrece en todas sus áreas.

- Cuentas de ***Amortizaciones***:

Como en el apartado de personal y a pesar de que estamos tratando el departamento de Servicio Generales, consideramos que en lo que se refiere Amortizaciones, debemos hacerlo de forma conjunta con el resto de partidas a las que se les imputan amortizaciones. A efectos de la analítica de costes que tiene establecida el Colegio, estas imputaciones se realizan proporcionalmente al uso que estimamos se dan a las diversas instalaciones colegiales, distribuyéndose el mismo entre los Servicios Generales, la Escuela de Práctica Jurídica y el Turno de Oficio, teniendo en cuenta los criterios y períodos de amortización establecido en la normativa fiscal y contable existente. A tal fin la cantidad imputada por dichos conceptos en todos los centros de coste ha ascendido a *206.371 €.*

Ingresos (Servicios Generales):

- ***Cuotas Colegiales***

Representan la primera fuente de ingresos del Colegio para el cumplimiento de sus funciones. Este año y ante las negativas perspectivas macroeconómicas que auguraban todos los organismos e instituciones fueron incrementadas después de 14 años de mantenimiento o reducción, provocando un incremento en la recaudación que compensa en parte la continua pérdida de colegiadas/os que el Colegio viene sufriendo en los últimos tiempos, como consecuencia del cambio en la pirámide poblacional.

El importe de las cuotas colegiales ha ascendido a 1.589.103 € (presupuestados 1.607.700 €) que, sumados los 54.000 € que han supuesto las de incorporación (49.900 € presupuestados), alcanzan *1.643.103 €,* el **45,26 % del total de los ingresos**. Cantidad algo inferior a los 1.657.600 € presupuestados.

El porcentaje de dependencia de las cuotas colegiales en los últimos años sigue siendo muy inferior a lo que ocurría en años precedentes (En el año 2011 este porcentaje ascendía al 60,86 %), derivado de la rebaja de las cuotas colegiales y la disminución

del número de incorporaciones, que se ha visto compensado por otro tipo de ingresos, principalmente derivados del incremento de la actividad formativa de nuestra Escuela de Práctica Jurídica o del incremento de la subvención obtenida por los gastos derivados de la Asistencia Jurídica Gratuita.

Escuela de Práctica Jurídica:

Debido a la importante actividad de la Escuela de Práctica Jurídica, tal y como se ha venido comentando en las memorias de los últimos años, los gastos, pero sobre todo los ingresos de la Escuela son muy relevantes dentro del volumen económico de nuestro Colegio, principalmente derivados del funcionamiento del Master de Acceso a la Abogacía y Procura que impartimos junto a la Universidad de Deusto (MUAAP). Por otro lado, este 2023, la impartición de formaciones y organización de jornadas profesionales ha sido constante tanto en formato físico como online provocando un aumento en la actividad colegial que se ve reflejado tanto en el aumento de gasto en la organización como en la recaudación por inscripciones.

Se detallan a continuación los aspectos que consideramos más relevantes:

GASTOS:

- Destacamos en primer lugar por su relevancia, los de la cuenta 623 ***Servicio de Profesionales Independientes***, por importe de *537.307 €.* En esta importante cantidad se incluye el abono a los numerosos profesores del Master de acceso a la Abogacía, MUAA, que organizamos conjuntamente con la Universidad de Deusto, el que realizamos a los profesores de prácticas del master de la UPV, el de los numerosos ponentes de cursos y jornadas celebradas a lo largo de todo el año y el abono de los servicios de los profesionales que trabajan en la dirección y organización de la Escuela.

- En segundo lugar por su importancia económica, hacemos referencia a los causados por ***Gastos de Personal***, con un importe de 306.690 €, que refiere el prorrateo de gastos de este tipo que imputamos, dentro de los de personal, a esta actividad colegial.

INGRESOS:

- Dado que se trata casi exclusivamente de la única fuente de financiación de la Escuela, lo destacamos por su relevancia, ***Ingresos de Organización de Actividades***, por importe de *948.043 €,* cantidad ligeramente inferior a la presupuestada (954.500 €), pero muy relevante en todo caso Este crecimiento viene motivado principalmente por el aumento en el número de jornadas y cursos, en comparación con los celebrados en años anteriores, tal y como hemos señalado anteriormente.

Turno de Oficio:

En este apartado reflejamos los gastos que se derivan de la infraestructura necesaria para la realización de las labores administrativas relacionadas directamente con el Servicio de Orientación Jurídica, así como los relacionados directamente con el Turno de Oficio y la Asistencia al Detenido en todas sus modalidades, incluida la Violencia Doméstica.

Este año 2023 se han reducido los gastos en relación a lo presupuestado, ascendiendo a un total de *675.422 €.* Presupuestados 758.035 €. El trabajo que se ha realizado en los últimos años en la mejora del sistema de gestión telemática y su directa comunicación con los colegiados, nos permite en estos momentos tener una información más fluida entre todos los organismos que trabajamos en la tramitación y resolución de la Justicia Gratuita y el Turno de Oficio, trasladando la misma a los colegiados designados en cada asunto a través de la extranet. Ello ha supuesto que en estos momentos el proceso de comunicación colegiados-Colegio respecto al Turno de Oficio y Asistencia al Detenido o investigado, así como en lo relativo a la Violencia Doméstica, se realiza casi de forma exclusiva por medios telemáticos, con eliminación de las comunicaciones en papel. Se siguen realizando algunas comunicaciones por Correo a juzgados y justiciables, pero se está trabajando para poder eliminarlas igualmente. Dichos sistemas telemáticos siguen evolucionando día a día para ofrecer un mejor servicio a quienes desarrollan tan importante labor.

Esto supone un gasto en servicios informáticos, que en este caso tienen una consecuencia rápida y directa en la mejora de la gestión del servicio, tanto para los colegiados, el Colegio, la Comisión de Justicia Gratuita y los particulares que acceden al servicio.

En cuanto a los ingresos *(675.138 €),* son superiores a los de 2022, debido a que para cuantificar los mismos se tiene en cuenta lo cobrado por los colegiados en Turno de Oficio y Asistencias el año anterior, según aplicación de lo recogido en el Decreto de Asistencia Jurídica Gratuita, ejercicio en el que, otra vez debido a la normalización de la situación post pandemia, lo trabajado e ingresado por los profesionales fue recuperando los valores previos a la pandemia.

En cualquier caso, como consecuencia del retorno a la normal actividad colegial, este año se han equiparado ingresos y gastos pasando el servicio a ser considerado neutro en la vertiente económica. Confiamos plenamente en que pueda mantenerse en estos guarismos de forma continuada en el tiempo.

Cooperación Internacional y Educación para el Desarrollo:

El 1% de nuestro presupuesto *(32.535 €),* este año se han repartido como es habitual, siguiendo los criterios de selección de la Comisión de Cooperación Internacional del Colegio, entre seis proyectos de los múltiples recibidos.

Los proyectos subvencionados fueron los siguientes:

1. FUNDACIÓN ALBOAN

Proyecto: Apoyo legal y paralegal a mujeres dalit trabajadoras informales en el Sur de la India para su defensa ante violaciones de derechos sociolaborales y contra el acoso sexual.

CONCESION**: 3.819,25€**

2. ASOCIACION HEGOA

Proyecto: Construyendo una estrategia jurídico-legal con enfoque de género para mujeres víctimas de violencia sexual durante el conflicto armado en El Salvador

CONCESIÓN: **4.218,00€**

3. ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ EUSKADI

Proyecto: Promover el acceso justo y equitativo a la justicia y a los servicios sociales de las mujeres y niñas en la Comunidad Urbana de Niamey (Níger).

CONCESION: **7.622,00€**

4. FUNDACIÓN PROCLADE YANAPAY

Proyecto: Promoción y defensa de los derechos de personas detenidas o privadas de libertad en Honduras

CONCESION: **3.006,19€**

5. FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD EUSKADI

Proyecto: Ejerciendo la abogacía para la defensa de derechos en El Salvador en un contexto de criminalización

CONCESION: **8.000,00€**

6. SOLIVE - ASOCIACIÓN SOLIDARIDAD VEDRUNA

Proyecto: Apoyo Jurídico a niñas y adolescentes supervivientes de violencias en Togo

CONCESION: **3.369,73€**

A esto hay que añadir la cantidad destinada al Observatorio Internacional de la Abogacía en Riesgo (OIAD), que este año se ha subvencionado con 2.500 €.

Secciones Colegiales, Grupos de Estudio y Corte de Arbitraje

A continuación, procedemos a detallar el resumen desglosado por diferentes centros de coste en función de sus presupuestos y ejecuciones haciendo especial hincapié en los que tienen una mayor repercusión a nivel económico.

Cultura:

A lo largo de este año se han retomado los conciertos, así como las sesiones del club de lectura y como consecuencia se ha ejecutado la totalidad del presupuesto destinado, *20.910 €* contra los 20.790 € presupuestados. El Colegio considera la organización de eventos culturales una de las funciones básicas sociales que debe mantener y potenciar en la medida de sus posibilidades. De cara a 2024, además de la recuperación de los conciertos en su salón de actos y la reactivación del club de lectura, se tiene intención de retomar las funciones teatrales y las exposiciones artísticas.

Acciones Corporativas:

Ejecutados *103.638 €* de gasto y 19.523 ingreso, de los 103.250 € de gasto y 30.000 de ingreso presupuestados.

Como se ha indicado anteriormente, este 2023 se han mantenido todos los servicios colegiales incluyendo el Banquete anual, así como el homenaje a los compañeros/as con 25 años de antigüedad y una nueva jura de nuevos miembros del Colegio

También se incluye en esta partida, dentro de servicios varios, la aportación que desde el Colegio se realiza a diversas organizaciones y asociaciones relacionadas con la abogacía o en las que la Junta de Gobierno considera adecuada nuestra participación.

Corte de Arbitraje:

Hace ya unos años que se estableció en la analítica como centro independiente de los servicios generales, de forma que se imputan a la misma los gastos e ingresos que se derivan directamente de su actividad.

La ejecución de gastos ha sido de *46.106,50€,* similar a lo presupuestado (56.845 €).

Siguiendo el criterio habitual en esta actividad, los arbitrajes se contabilizan en el momento de la liquidación, lo que solo nos ha permitido contabilizar como ingreso por este concepto 4.003,00 €.

Boletín:

A lo largo de 2023 se han realizado 8 boletines que se han puesto a disposición de las colegiadas y colegiados en formato digital y un pequeño número de ellos en el Colegio y sedes provocando que el gasto haya sido de 58.355€ frente a los 82.100€ presupuestados.

Sin embargo, esto no ha supuesto una rebaja de los ingresos por publicidad, negociados desde principios de año, habiendo supuesto un importe de *56.441 €* (60.000 € presupuestados).

Publicaciones:

En cuanto a la partida destinada a publicaciones, se han ejecutado 35.392 € de los 41.000€ presupuestados incluyéndose 5 publicaciones distribuidas entre los colegiados, así como el gasto ocasionado al Colegio por la adquisición de la base de datos de Jurisprudencia, Legislación, Doctrina y Formularios de la editorial Vlex, que se encuentra subida en la extranet colegial a través de nuestra web para el uso gratuito de todos los colegiados/as.

Grupos de Estudio:

Del mismo modo que en el resto de actividades colegiales, los grupos de estudio han mantenido su actividad habitual, reuniéndose, organizado las jornadas y acudiendo a

congresos relativos a su materia que se han organizado a lo largo del año, pero como puede comprobarse sin apenas consecuencias económicas en nuestra ejecución presupuestaria.

Las memorias de actividad de todas las comisiones y grupos de estudio colegiales se recogen en el apartado de comisiones de nuestra web colegial.

Puede concluirse que el gasto que se aprobó en su día no se ha cumplido, habiéndose realizado un total de 3.537.918,71 € de los 3.724.485 € presupuestados, un 5 % menos.

En cuanto a los ingresos, se han obtenido un total de 3.729.968 €, 219.648,69 € más de lo presupuestado, por lo que resulta un superávit de 192.049,98 € que engrosaran el Fondo Social de nuestro Colegio tal y como se ha hecho en ejercicios anteriores y se ha referido en el resumen inicial de esta memoria.

Los datos que se describen y acompañan están siendo auditados por empresa independiente en el momento que se redacta esta memoria, cuyo informe estará a disposición de todos los colegiados a través de la web colegial antes de la celebración de la **Junta General de rendición de Cuentas** el próximo **día 24 de Abril de 2024,** miércoles, a las **13,00 horas**, en el Salón de Actos de nuestro Colegio.

En Bilbao a 17 de abril de 2024

GASTU ETA SARREREN TXOSTEN EKONOMIKOA. BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUA

2023ko ekitaldia

2023ko ekitaldi ekonomikoa berriz ere ezohikoa izan da gertaera geopolitiko eta makroekonomikoen ondorioz, eta era guztietako aldaketak eragin ditu erakunde publiko-pribatuek ekitaldi horretarako egindako aurreikuspenetan.

Ekitaldi honetan, izugarrizko aldaketa izan da banku zentralen politikan, mundu mailan gertatzen ari diren gerra-gatazken ezegonkortasun geopolitikoak eragindako inflazio-tasa handiei aurre egiteko, hala nola Errusia eta Ukraina eta Israel eta Palestinaren arteko gerrari. Egoera horren aurrean, eta prezioen igoera geldiarazteko asmoz, banku zentralek interes-tasak inoiz ez bezala igo dituzte, eta, ondorioz, politika ekonomiko aldatu aurretik egindako edozein aurrekontu indargabetuta geratu da.

Interes-tasen ezusteko igoera horren ondorioz, Elkargoaren finantza-inbertsioen errentagarritasuna nabarmen handitu da, eta, ondorioz, superabit handia sortu du, 2022. urtearen amaieran aurrekontuan jasotakoarekin alderatuta; izan ere, orduan ez genekien zer neurri hartu behar zituzten banku zentralek.

Ohi bezala, memoria honekin batera doan taulan, urtean zehar egindako gauzatze ekonomikoa adierazten duten zenbatekoekin batera, gastu-zentro bakoitzeko beste zutabe bat dago, kontzeptu beragatik ekitaldirako aurrekontuan jasotako zenbatekoarekin, irakurleak erraz aldera dezan 2022ko abenduaren 27an egindako Aurrekontuen Batzar Orokorrean onartutakoarekin.

Taula horrek argi, erraz eta osorik eskaintzen du urtean zehar egindako gastu eta diru-sarreren informazio ekonomiko guztia, Elkargoak ezarrita duen kontabilitate analitikoan oinarrituta, eta zehatz-mehatz deskribatzen ditu Elkargoak bere funtsak bideratzen dituen partidak eta kontzeptuak, bai eta sarrerak sartzeko bideak ere, epigrafe berberetan banakatuta. Horrela, horietako bakoitza azkar egiazta daiteke, bai eta elkargoaren gastuetan eta diru-sarreretan duen benetako eragina ere; era berean, kontzeptu bakoitzean ikus daiteke aurrekontuan jasotakotik izan daitekeen desbideratzea.

Jarduera-zentroen arabera zehaztutako gastuen eta sarreren partidak zehatz xehatzeaz gain, txosten honetan iruzkindu beharreko beste alderdi batzuk aipatzen dira, garrantzi ekonomiko berezia dutelako, gure ustez. Dena den, Elkargoko diruzainak **Batzar Nagusian** informazio zabala emango du **apirilaren 24an, asteazkena, 13.00ean,** gure egoitzaren ekitaldi-aretoan (Uribitarteko Aldapak, 3, Bilbo).

Atal edo kostu-zentro hauek **nabarmendu eta zehatzago azaldu** nahi ditugu, garrantzitsuak direlako edo zenbateko aipagarria dutelako:

Zerbitzu orokorrak:

Kontzeptu honetan gure elkargoaren egiturari eta ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu eta sarrera guztiak bildu dira, hau da, jarduera zehatz bati ez dagozkionak. Hori dela eta, kopururik handiena duen partida da.

Gastuak (Zerbitzu orokorrak):

Ondoren, zerbitzu orokorren barruan aipamen berezia merezi duten gastuen azalpen laburra gehitu dugu, gure ustez oso garrantzitsuak dira eta:

- *603* partida, ***Liburutegiari*** dagokiona *(70.092 €)*.

  Aurrekontuan jasotakoa baino kopuru txikiagoa gauzatu da; are gehiago, azken urteetan gauzatu dena baino txikiagoa izan da. Atal hau beti aipatu beharrean gaude, gure ustez garrantzi handia baitu, ez zenbatekoari dagokionez soilik, 70.092 € (aurreikusitakoa: 85.000 €), baizik eta zerbitzu hau abokatuoi eskaintzen zaigun nagusietakoa delako eta guztiok sarritan erabiltzen dugulako. Kontzeptu honetara, monografiak erostea, aldizkako argitalpenetan, aldizkari ofizialetan, datu-base juridikoetan izena ematea, koadernaketak, etab. biltzen dira, baita legegintzako eta jurisprudentziako datu-baseetan on line izena ematea ere, Elkargoko liburutegian, Buenos Aires eta Barroetako justizia jauregietan eta barruti judizialetako egoitza judizialen bulegotan (Barakaldo, Getxo, Gernika eta Durango).

  Gainera, gure langileek eskainitako Legeriaren eta Jurisprudentziaren Informazioko eta liburu-maileguko zerbitzua mantendu da, gure erabiltzaileek hain ondo baloratu dutena.

- 607 partida, ***Beste enpresa batzuek egindako lanak*** izenekoa, *66.5473 €* euro dituena.

  Partida horren barruan sartzen da Elkargoak komunikazio-zerbitzura edo sinadura elektronikoa duten elkargoko txartelak sortzera bideratzen duena. Gainera, Elkargoak elkargoaren egoitza guztietan dauden togak garbitu, konpondu eta egiteko erabiltzen duena jasotzen da. Horren ildotik, auzitegietan toga eskatzea berrezartzearen ondorioz, gastua nabarmen handitu da berriro, eta joera horri eustea aurreikusten dugu. 2023 honetan, togak mantentzeko eta konpontzeko kostua 36.624,48 €-koa izan da.

- 622 partida, ***Konponketak eta kontserbazioa*** izenekoa, *110.826 €* dituena.

  Partida honetan, ohi bezala, hauek sartzen dira: Elkargoaren egoitza guztietako instalazioak eta ekipoak mantentzetik nahitaez eratorritako gastu guztiak jaso dira:

ordenagailuak, fotokopiagailuak, lokalen garbiketa, zainketa- eta detekzio-sistemak, airea girotzekoak, togak egin eta konpontzea, lokalak margotu eta zaharberritzea, etab., baita elkargo profesionala garen neurrian gure jarduerari dagozkion bestelako gastu orokor arruntak.

- 623 kontua *(150.634,74 €)*, ***Profesional independenteek emandako zerbitzuak.***

Gure aurrekontuetan kopuru garrantzitsua izaten da beti. Funtsean, Elkargoarentzat lanak egiten dituzten profesionalei, batez ere abokatuei, egiten zaien ordainketari dagokio. Profesional horiek jarduera espezializatuak egiten dituzte Elkargoarentzat, besteak beste, honako hauen inguruko gastuak sartzen dira minuten aurretiazko txostenak, elkargokideei eta jendeari oro har eskaintzen zaien ordainsarien zerbitzua, eta erantzukizun zibilari buruzko txostenak, kasua balitz. Partida horrek gorakada handia izan du azken urteotan, batez ere ekitaldian zehar Elkargoan ebazteko hainbat epaitegitatik jaso ditugun kostuen tasazio-txostenen eskaera ugariengatik. Eskaera horiek, batez ere, banku-arazoetatik datoz, eta auzietan epemugatu diren erakundeek profesionalen minutak aurkaratzen dituzte. Azken urteetan partidak gora egin duen arren, 2023an nabarmen murriztu da izapidetutako txostenen kopurua, eta, horren ondorioz, aurrekontuan jasotako zenbatekoa nabarmen murriztu da.

Era berean, elkargoaren kontuen urteko auditoretza egiten duen enpresaren kostua ere sartzen da, bai eta elkargoaren kudeaketarekin eta elkargokideekiko komunikazio-plataformekin lotutako etengabeko egokitzapen eta hobekuntza informatikoetarako Elkargoak kontratatzen dituen profesionalen gastuak ere, horiek etengabe aldatzen ari baitira.

- 6272 partida, ***Publizitatea eta Propaganda*** *(49.749 €)*.

Bertan Elkargoak herritarrek abokatu-zerbitzuak erabiltzearen alde egindako publizitate-gastuak jaso dira. Aurreko urteetan bezala, aurten ere kanpaina bat egin da, abenduan, Metroko, Euskotreneko eta Bizkaibuseko geltokietan kartela deigarriak jarrita; horrela, Bizkaia osora zabaldu dugu gure mezua. Horrez gain, El Correo egunkariak iragarkiak jartzeko egin zigun eskaintza aprobetxatu dugu, izan ere, ekonomikoki oso interesgarria zen; ondorioz, urtean zehar eguneroko horretan agertu gara.

Publizitate ekimen horien bidez, abokatutzaren irudia indartu nahi da eta, baita ere, abokatuak kontratatzeak dituen abantailak herritarren artean zabaltzea, batez ere, halako zerbitzuak inoiz erabili ez dituztenen artean; halaber, abokatuon prebentziozko lana bultzatu dugu.

- 6291 partida, ***Komunikazioak*** *(30.947 €)*.

Bertan sartzen dira posta-zerbitzuen edo antzekoen bidez korrespondentzia bidaltzearen ondoriozko gastu guztiak, bai eta Elkargoaren bulegoetan dauden telefonia eta Interneterako sarbidearenak (Wifi) edo horien arteko interkonexio

telematiko eta telefonikoarenak ere. Komunikazio horiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, estranetaren bidez elkargokideei eskaintzen zaizkien zerbitzuak handituz doazen heinean. Hala ere, kostuaren beherapena lortu da hornitzaileekin egindako negoziazioagatik eta horrelako zerbitzuen prezioa murrizteagatik, bai eta Elkargoak eremu guztietan duen komunikazio-politikagatik ere, pandemiaren garaian hain zerbitzu ona eskaini digun sistema telematikoetara bideratuz.

- 6293 kontua, ***Elkartasun Funtsa*** izenekoa (*3.000 €).*

  Elkargoak duela hamarkada bat baino gehiago onartu zuen erregelamenduan ezarritako irizpideen arabera, Elkargoak urtero banatzen du dirua, batez ere elkargokideen seme-alabentzako eta alargunentzako laguntza gisa erabiltzeko. Aurten, azkenean eman den zenbatekoa handiagoa izan da, zehazki 23.301,00 €; horretarako, gure balantzean dagoen superabita erabili dugu, aurreko ekitaldietan funtsera ekarritako kopuruetatik datorrena.

  Aipatutako erregelamendua Elkargoaren web orrian ikusgai duzue (www.icasv-bilbao.com). Eskabideak urtero egin ahal dira, urria baino lehenago; dena dela, Elkargoak urtean zehar aurkeztutakoak ere aztertu eta, kasua denean, onartuko ditu.

- 631 kontua, ***Zergak*** (1.*973 €).*

  Kontu horretan Elkargoak kontzeptu horretarako erabili duen zenbateko osoa jasotzen dugu; eta bereziki aipatu nahi dugu, Elkargoaren eraikina Monumentu izendapenaz Babes Bereziko Kultura Ondasun gisa kalifikatzearen ondorioz, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita geratzen delako.

- ***Pertsonalari*** buruzko zenbatekoa (hau da, Alokairuak eta soldatak, Gizarte Segurantza eta Beste gizarte-gastu batzuk).

  Zerbitzu Orokorretako atala jorratzen ari garen arren, uste dugu pertsonal-gastuei dagokienez elkargoko gainerako zerbitzuekin batera egin behar dugula. Hori dela eta, Elkargoaren kostu-zentro guztiei eta langileekin, alokairu eta soldatekin, Gizarte Segurantzarekin eta beste gizarte-gastu batzuekin lotutako partida guztiei egiten diegu erreferentzia.

  Horrenbestez, Elkargoak kontzeptu horiengatik 2023ko ekitaldian guztira 1.511.857,82 € ordaindu ditu, aurrekontuan jasotakoa baino zertxobait gutxiago (1.660.680 €). Zenbateko horrek 2023ko ekitaldian 61.000 euroko zuzkidura bat hartzen du barne, hain zuzen ere, egitasmo hau betetzeko: Gobernu Batzordeak datozen urteetarako onartutako plantillaren optimizazio-eta aldatze-plana.

  Elkargoko gastu guztiekiko ehunekoa aurreko ekitaldikoa baino pixka bat handiagoa da (% 43, aurreko urteko % 41,48aren aldean), eta garrantzi handikoa izaten jarraitu arren, ondo baloratu egin behar dugu, kontuan hartuta Elkargoak lan-kontratupeko langileetan oinarritzen duela bere arlo guztietan eskaintzen dituen zerbitzu gehienen eskaintza.

- ***Amortizazioak***:

Pertsonalari buruzko atalean bezala, eta Zerbitzu Orokorretako atala aztertzen ari garen arren, amortizazioak egozten zaizkien gainerako partidekin batera egin behar dugula uste dugu. Elkargoak ezarritako kostuen analisiaren ondorioetarako, egozpen horiek elkargoko instalazioei ematen zaien erabileraren proportzioan egiten dira, eta Zerbitzu Orokorren, Praktika Juridikoko Eskolaren eta Ofiziozko Txandaren artean banatzen da, egungo zerga- eta kontabilitate-araudian ezarritako amortizazio-irizpideak eta -aldiak kontuan hartuta. Horretarako, kontzeptu horiengatik kostu-zentro guztietan egotzitako zenbatekoa *206.371 €*-koa izan da.

Diru sarrerak (Zerbitzu orokorrak):

- ***Elkargoko kuotak***

Elkargoaren lehen diru-iturria dira bere eginkizunak betetzeko. Aurten, eta erakunde eta instituzio guztiek aurreikuspen makroekonomiko negatiboak zituztela ikusita, handitu egin ziren 14 urtez mantendu edo murriztu ondoren. Ondorioz, diru-bilketa handitu egin da, eta horrek konpentsatu egiten du, hein batean, Elkargoak azken aldian izan duen etengabeko galera, biztanleria-piramidearen aldaketaren ondorioz.

Elkargoko kuoten zenbatekoa 1.589.103 €-koa izan da (1.607.700 €-ko aurrekontua). Kuota horiek —elkargokide berrien sartzeen 54.000 € gehituta (49.900 €-ko aurrekontua)—, *1.643.103 €-ra* iritsi dira, **sarrera guztien % 45,26**. Aurrekontuan sartutako 1.657.600 euroak baino zertxobait gutxiago.

Elkargoko kuotekiko menpekotasun-ehunekoa, azken urteotan, aurreko urteetan baino askoz ere txikiagoa da (2011n, ehuneko hori % 60,86koa zen), elkargoko kuotak murriztearen eta elkargokide berrien murriztearen ondorioz, beste diru-sarrera batzuekin konpentsatu baita, batez ere gure Praktika Juridikoko Eskolaren prestakuntza-jarduera handitzearen edo doako laguntza juridikoak eragindako gastuengatik lortutako dirulaguntza handitzearen ondorioz.

Praktika Juridikorako Eskola:

Praktika Juridikoko Eskolaren jarduerak gora egin duenez –aurreko ekitaldietan aipatzen genuen moduan–, gastuak ere nabarmen handitu dira, baina batez ere diru-sarrerak. Horren arrazoi nagusia Deustuko Unibertsitatearekin batera martxan dugun abokatu eta prokuradore modura aritzeko unibertsitate masterra da. Bestalde, 2023. urte honetan, prestakuntza eta jardunaldi profesionalen antolaketa etengabea izan da, bai formatu fisikoan, bai online, eta elkargoaren jarduera handitu egin da, antolaketaren gastuan zein izen-emateen ondoriozko bilketan islatzen dena.

Jarraian, datu azpimarragarrienak jaso ditugu:

GASTUAK:

- Lehenengo eta behin, garrantziari erreparatuz, 623 kontukoak aipatu behar dira, ***Profesional Independenteen Zerbitzua***, *537.307 €* guztira. Kopuru hori erabili da antolatutako ikastaroetako eta Masterreko irakasleei eta hizlariei ordaintzeko. Partida honetan, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatzen dugun masterreko irakasle ugariei ordaintzea, UPV-EHUko masterreko praktiketako irakasleei egiten dieguna, urte osoan zehar egindako ikastaro eta jardunaldietako hizlari ugariena, eta eskolaren antolaketan lan egiten duten profesionalen zerbitzuak ordaintzea sartzen dira.

- Bigarrenik, duten garrantzi ekonomikoagatik, ***Pertsonal Gastuek*** eragindakoak aipatuko ditugu, *306.690* €-ko zenbatekoarekin, langileen gastuen artean elkargo-jarduera horri egozten diogun hainbanaketa aipatzen duena.

SARRERAK:

- Ia-ia finantzaketa-iturri bakarra denez, garrantziari erreparatuz, kontu hau aipatu behar da: ***Jarduerak antolatzearen ondoriozko sarrerak***, *948.043 €* guztira. Kopuru hori aurrekontuan jasotakoa baino zertxobait txikiagoa da (954.500 €), baina oso garrantzitsua nolanahi ere, batez ere, aurreko ekitaldiekin alderatuta ikastaro eta jardunaldien kopurua nabarmen handitu da eta, aurretik adierazi bezala.

Ofiziozko txanda:

Atal honetan, Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren eginkizunetarako beharrezko azpiegiturari dagozkion gastuak jaso ditugu, baita ofizioko txandari eta atxilotuari laguntzeko zerbitzuari dagozkionak ere, modalitate guztietan, etxeko indarkeria barne hartuta.

Aurten, 2023an, gastuak murriztu egin dira aurrekontuarekin alderatuta, eta guztira *675.422 €* izan dira (aurrekontuan, 758.035 €). Azken urteotan kudeaketa telematikoko sistema hobetzeko eta elkargokideekin zuzenean komunikatzeko egin den lanari esker, Doako Justiziaren eta Ofiziozko Txandaren tramitazioan eta ebazpenean lan egiten dugun erakunde guztien artean informazio arinagoa dugu, eta gai bakoitzean hautatutako elkargokideei helaraziko diegu, estranetaren bidez. Horren ondorioz, une honetan, ofiziozko txandari eta atxilotuari edo ikertuari laguntzeko txandari buruzko elkargo-elkargoen komunikazio-prozesua, bai eta etxeko indarkeriari buruzkoa ere, ia modu esklusiboan egiten da bitarteko telematikoen bidez, paperezko komunikazioak

ezabatuta. Epaitegiei eta justiziapekoei posta bidezko komunikazio batzuk egiten jarraitzen da, baina horiek ere ezabatzeko bidean daude. Sistema telematiko horiek egunez egun eboluzionatzen jarraitzen dute, hain lan garrantzitsua egiten dutenei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Horrek guztiak gastu bat dakar zerbitzu informatikoetan, eta, kasu honetan, ondorio azkar eta zuzena dute zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko, bai elkargokideentzat, bai Elkargoarentzat, bai Doako Justizia Batzordearentzat, bai zerbitzua eskuratzen duten partikularrentzat.

Diru-sarrerei dagokienez *(675.138 €)*, 2022ekoak baino handiagoak dira; izan ere, horiek kuantifikatzeko, kontuan hartzen da elkargokideek ofiziozko txandan eta asistentzia-txandan aurreko urtean kobratutakoa, Doako Laguntza Juridikoaren Dekretuan jasotakoaren aplikazioaren arabera. Ekitaldi horretan, berriz ere pandemiaren osteko egoeraren normalizazioaren ondorioz, profesionalek burututakoa eta irabazitakoa pandemiaren aurreko balioarekin parekatzen joan da.

Nolanahi ere, elkargoaren ohiko jarduerara itzultzearen ondorioz, aurten diru-sarrerak eta gastuak parekatu egin dira, eta zerbitzua neutrotzat hartu da alderdi ekonomikoari dagokionez. Konfiantza osoa dugu zenbakiak bere horretan mantenduko direla aurrerantzean.

Nazioarteko lankidetza eta Garapenerako hezkuntza:

Aurrekoetan bezala, gure aurrekontuaren % 1 *(32.535 €)* banatu da, sei egitasmotan, Elkargoaren Nazioarteko Lankidetza Batzordearen hautaketa-irizpideei jarraituz, jasotako hainbat eta hainbat proiekturen artean.

Hauek izan ziren Nazioarteko Lankidetzarako diruz lagundutako egitasmoak:

1. ALBOAN FUNDAZIOA

Egitasmoa: India Hegoaldeko dalit emakume langile informalei babes legala eta paralegala ematea, eskubide soziolaboralen urraketen eta sexu-jazarpenaren aurka defendatzeko.

EMANDAKO ZENBATEKOA: **3.819,25 €**

2. HEGOA ELKARTEA

Egitasmoa: Genero-ikuspegidun estrategia juridiko-legal bat eraikitzea El Salvadorreko gatazka armatuan sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.

EMANDAKO ZENBATEKOA**: 4.218,00 €**

3. ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ EUSKADI

Egitasmoa: Niameyko Hiri Komunitatean (Niger) emakumeen eta neskatoen justiziarako eta gizarte-zerbitzuetarako sarbide zuzen eta bidezkoa sustatzea

EMANDAKO ZENBATEKOA**: 7.622,00 €**

4. PROCLADE YANAPAY FUNDAZIOA

Egitasmoa: Atxilotutako edo askatasunaz gabetutako pertsonen eskubideak sustatzea eta defendatzea Hondurasen.

EMANDAKO ZENBATEKOA**: 3.006,19 €**

5. PAZ Y SOLIDARIDAD EUSKADI FUNDAZIOA

Egitasmoa: El Salvadorren eskubideak defendatzea, kriminalizazio-testuinguru batean.

EMANDAKO ZENBATEKOA: **8.000,00 €**

6. SOLIVE - ASOCIACIÓN SOLIDARIDAD VEDRUNA

Egitasmoa: Laguntza juridikoa Togon indarkeriatik bizirik atera diren neska eta nerabeei.

EMANDAKO ZENBATEKOA: **3.369,73 €**

Horri gehitu behar zaio Arriskuan dagoen Abokatutzaren Nazioarteko Behatokiari (OIAD) bideratutako zenbatekoa; aurten, 2.500 €-ko dirulaguntza.

Elkargoko batzordeak, azterlan taldeak eta beste gastu gune batzuk:

Jarraian, memoriarekin batera gehitu dugun taula analitikoaren ordenari jarraituz, beste gastu gune batzuk eta Elkargoko batzordeak azalduko ditugu, garrantzi ekonomikoa edo Elkargorako duten interesa kontuan hartuta azalpen berezia merezi dute eta.

Kultura:

Aurten, kontzertuei eta irakurketa-klubeko saioei ekin zaie berriro, eta, ondorioz, bideratutako ia aurrekontu osoa gauzatu da: *20.910 €*, aurrekontuan sartutako 20.790 €-etatik. Elkargoak kultur ekitaldien antolaketa —ahal duen neurrian— mantendu eta indartu behar duen oinarrizko funtzio sozialetako bat dela uste du. 2024rako, ekitaldi-aretoan kontzertuak berreskuratzeaz eta irakurketa-kluba berrindartzeaz gain, antzerki-emanaldiei eta erakusketa artistikoei berriro ekiteko asmoa dago

Ekimen korporatiboak:

103.638 euroko gastua eta 19.523 euroko sarrera izan dira; aurrekontuetan 103.250 euroko gastua eta 30.000 euroko sarrera ezarrita zeuden.

Aldez aurretik adierazi bezala, 2023an elkargoko zerbitzu guztiak eskaini dira berriro, urteko bazkaria barne, baita 25 urte bete zituztenei omenaldia ere, bai eta elkargoan sartzeko ekitaldiak ere.

Partida horretan sartzen da, halaber, hainbat zerbitzuren barruan, Elkargoak abokatutzarekin zerikusia duten edo Gobernu Batzordeak gure parte-hartzea egokitzat jotzen duen hainbat erakunde eta elkarteri egiten dien ekarpena.

Arbitraje auzitegia:

Duela urte batzuk, zerbitzu orokorren zentro independente moduan ezarri zen; horrenbestez, auzitegiaren jardueratik zuzenean eratorritako gastuak eta sarrerak hari egozten zaizkio.

Gastuen exekuzioa *46.106,50 €*-koa izan da, aurrekontuan jasotakoaren antzekoa (56.845 €).

Jarduera honetan ohikoa den irizpideari jarraituz, arbitrajeak likidazioaren unean kontabilizatzen dira, eta horrek 4003,00 € kontzeptu horrengatik diru-sarrera gisa kontabilizatzea baino ez digu ahalbidetu.

Agerkaria:

2023an, 8 aldezkari prestatu ditugu, eta elkargokideen eskura jarri dira, formatu digitalean, eta horietako kopuru txiki bat elkargoan eta egoitzetan. Horren ondorioz, gastua 58.355 eurokoa izan da; aurrekontuan 82.100 euro jarri ziren.

Hala ere, horrek ez du esan nahi publizitateagatiko diru-sarrerak jaitsi direnik, urte hasieran negoziatu baitziren: *56.441 €* (60.000 € aurrekontuan).

Argitalpenak:

Argitalpenetara bideratutako partidari dagokionez, aurrekontuan sartutako 41.000 eurotatik 35.392 euro gastatu dira; zenbateko horren barruan elkargokideen artean banatutako 5 argitalpen daude, baita Vlex argitaletxearen Jurisprudentzia, Legeria, Doktrina eta Formularioen datu-basea eskuratzeak Elkargoari eragindako gastua ere (ezaguna denez, Vlex argitaletxea gure webgunearen bidez elkargoaren estranetean igotzen ari da hori guztia, elkargokide guztiek doan erabil dezaten).

Ikasketa taldeak:

Elkargoko gainerako jarduerekin gertatu bezala, ikasketa-taldeek beren ohiko jarduerari eutsi diote. Jardunaldiak bildu, antolatu eta urtean zehar antolatu diren biltzarretara joan dira, baina gure aurrekontu-betearazpenean ia ondorio ekonomikorik gabe egiazta daitekeenez.

Batzordeen eta ikasketa taldeen jarduera-txostenak Elkargoaren web orrialdean sartuta daude, hain zuzen ere, batzordeei eskainitako atalean.

Laburbilduz, ondoriozta daiteke bere garaian onartu zen gastua ez dela bete, guztira 3.537.918,71 € gastatu baitira aurrekontuan adierazitako 3.724.485 €etatik; hau da, % 5 gutxiago gastatu da.

Diru-sarrerei dagokienez, 3.729.968 € jaso dira guztira, aurrekontuan jasotakoa baino 219.648,69 € gehiago. Beraz, 192.049,98 euroko superabita dago, eta aurreko ekitaldietan egin den bezala, gure elkargoaren gizarte-funtsera doa, memoria honen hasierako laburpenean aipatu bezala.

Azaldutako eta erantsitako datu guztiak enpresa independente batek ikuskatzen ditu memoria hau idazten den unean. Enpresa horren txostena elkargokide guztien eskura egongo da Elkargoaren webgunearen bidez, **2024ko apirilaren 24an**, asteazkena, **Kontuak Emateko Batzar Nagusia** egin aurretik; batzar hori **13:00etan** izango da, gure Elkargoko Areto Nagusian.

Bilbon, 2024ko apirilaren 17an